'Sagardoa' liburua aurkeztu dute

Hernaniko Zelaia sagardotegian *Sagardoa* liburua aurkeztu zuen atzo haren egileak, Antxon Agirre Sorondok. Luis Haranburu Altuna editoreak argitaratu duen liburuan sagardoaren alde «historikoa, etnografikoa eta teknikoa bildu nahi» izan ditu egileak. Duela urte batzuk Astigarragako inprenta baten eskariz sagardoari buruzko liburuxka bat osatu zuen Agirre Sorondok, inprentako bezeroen artean banatzeko. Liburuxka hura ez zen salgai jarri baina eskaria handia izan zen, eta hari jarraiki erabaki zuten idatzitakoa osatu eta liburu berria argitaratzea.